Ikusirik, Konstituzioko 140. artikulua udalerriei aitortzen dien autonomiaren oinarriaren gainean, Toki Jardunbideko Oinarri buruzko apirilaren 2-ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerriei bere burua antolatze ahalmena aitortzen diela.

Ikusirik, Jarduera Fisikoa eta Kiroletako Batzorde Informatzailearen 2021.03.11ko eta Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzailearen 2021.03.16ko irizpenak.

Alkate andreak gaia eztabaidara jarri du eta parte-hartzerik izan ez denez, jarraian proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- 2021-2022 ikasturterako 80 euroko tasa onartzea eta adinekoentzako Pilates ikastaroa martxan jartzea.

2.- Administrazio-espedientea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian erakutsiz, **30 eguneko** epeaz, interesadunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.- Espedientea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

7. Interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzea Ondarreta Ikastetxeko obrak.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kasu honetan, sukaldea eta jantokia eraberritzea izango litzateke proposatzen dena.

“Correspondería a la reforma de la cocina y comedor del Colegio Ondarreta.”

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren 2020.10.02ko idatzia, 2020.10.05ean aurkeztutakoa, eta honen bidez eskatzen da Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergatik %50 hobaria eta Kontuhartzaileak indarrean dauden Ordenantza Fiskaletan araututakoaren berri eman ondoren.

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzordeak 2021.03.16an emandako aldeko irizpidea.

Alkate andreak gaia eztabaidara jarri du eta parte-hartzerik izan ez denez, jarraian, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Udal intereseko eta erabilerakotzat jotzea, hori justifikatzen duten arrazoi sozialak tarteko direlako.

2.- Ondarreta ikastetxeko sukaldea eta jantokia eraberritzea

3.- Behin Udalbatzak erabakia hartu ondoren, tokiko zergetan hobaritzeko eskaera berriro aztertu beharko du Ekonomia eta Ogasuneko Batzorde Irizpenemaileak.

8. 2021.03.09an EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa.

Zulueta jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza eta aurkeztutako mozioa irakurri du, honakoa diona:



“Arratsalde on. Andoingo Oinarrizko Lanbide Heziketa Zentroa indartzeko neurriak hartzeari buruz.

“Oinarrizko Lanbide Heziketa zenbait zentro oraindik udalen kudeaketaren esku daude, horien artean gurea, Andoingo. Ikastetxe hauek Hezkuntza Saileko Lanbide Hezkuntzako Sailburuordetzaren menpekoak izan arren, udalek kudeatzen dituzte eginkizunen eskuordetza baten bidez.

“Momentu honetan, hurrengo bost urteetan zerbitzu honen kudeaketa arautzen duen dekretua lantzen ari da saila udalerriekin batera, hori horrela, momentu egokia da Oinarrizko Lanbide Heziketaren oinarriak sendotzeko.

“Oinarrizko Lanbide Heziketak ikaslearen garapen pertsonal eta profesional izan behar ditu helburu. Horrela, ezinbestean integrazio soziala lortzea, ikaste prozesua berreskuratzea eta lan munduan sartzeko bitartekoak eskaini behar dizkie ikasleei.

“Hala ere, aipatu helburu hauek lortzeko udalek bitarteko ekonomikoak izatea beharrezkoa da, finean, bitarteko hauei esker eskaini ahalko dituzte kalitatezko hezkuntza prozesuak. Guzti hau, oinarri Andoingo udalak Hezkuntza Sailari eskatzen dio:

“1. Udalen bidez kudeatzen den Oinarrizko Lanbide Heziketa indartzeko konpromisoa har dezala.

“2. Indartze hori gauzatzeko udalei egiten zaien ekarpen ekonomikoa handitzeko konpromisoa har dezala, kalitatezko zerbitzua helburu.

“3. Gizarteratzean laguntzeko lanpostua finantzatzeko konpromisoa har dezala.

“4. Inbertsioak egiteko finantzazio lerro berri bat sortzeko konpromisoa har dezala.

“5. Udalen esku dauden, Oinarrizko Lanbide Heziketan lan egiten duten profesionalak erakunde publikoko langile izaki, hauen lan esperientzia, lanbide heziketako zentro publikoetako berdina izatea garapen profesionalean lagungarri izan dadin konpromisoa har dezala.

“6. Udalak, mozio honen berri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta Hezkuntza Batzordeko kideei emango die.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, PSE.-EE eta EAJ/PNV udal taldeek aurkeztutako mozioa irakurri du, honakoa diona:

“Andoingo udalak Oinarrizko Heziketa Zentroaren harira aurkezten dugun mozioa, Eusko Jaurlaritzari:

“Andoingo udalak Hezkuntza sailari eskatzen dio konpromisoa har dezala udalen bidez kudeatzen den Oinarrizko Lanbide Heziketa bultzatzeko, haiekin lankidetzan eta koordinatuta, hala eskatzen duten kolektiboek erantzuna emateko, behar diren baliabideen beharrak aztertuz, eskatutako kalitate mailekin gauzatu ahal izateko.”

Jarraian, Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bigarren kasuan esplikatzeko, izango litzateke Andoingo EAJ alderdiak eta Alderdi Sozialistak aurkeztutako mozio alternatiboa eta orain debaterako momentua irekiko genuke.

“Decía que es la segunda moción, la presentada por los partidos de PNV y el Partido Socialista y sería una moción alternativa a la ya presentada por EH Bildu y, ahora ya, pasaríamos al debate.”

Berriro ere, Zulueta jaunak, hartu du hitza honakoa esateko:

“Gure aldetik eta, espero det, gehiegi luzatzeko asmorik gabe ere, guk, penatuta baino behintzat sorpresaz jaso dugu gaur goizean gobernu taldeek aurkeztutako mozio alternatiboa, uste dugu eta, begi bistakoa da, mozio alternatiboan ez dela ezer eskatzen, hau da, planteatzen da metodo bat, egin dadila, Hezkuntza sailaren eta udalerrien arteko elkarrizketa bat Oinarrizko Lanbide Heziketako dekretu berria adosteko, hori, gaur gaurkoz egiten ari da, esan nahi dut, badago mahai bat antolatua eta egiten ari dira, ez dugu bestelako konpromisorik hartzen, EH Bilduren mozio hauek, bai Andoainen eta Oinarrizko Lanbide Heziketa dauden beste udalerrietan, eskualdean, Usurbilen, Hernanin, aurkeztearen logika bat da negoziazio prozesu honetan, nolabaiteko eskaera berdina batzuk mahai gaineratzea, zeren azkenean, zentro hauek behar handiak dituzte, historikoki datorren gai bat dat, garapen bat izan duena, taller okupazionaletik hasi eta oinarrizko lanbide heziketa bihurtzeraino, baino, iruditzen zaigu bultzada berri batzuk eman behar direla eta negoziazio honetan, egia da, Jaurlaritzaren aldetik ari direla konpromiso batzuk hartzen, baina, beste batzuk hartzeko nahiko indar ez dago oraindik edo ez da hala adierazi, bai iradokitzen dira dekretuen redakzioan agian, integraziozko langileak sartzeko aukera egon daitekeela, baina,



ez da konpromiso zehatzik hartzen eta gure ustez, bada momentua Andoingo udalak ere posizionamendu bat eta exigentzi bat egiteko.

“Azkenean, hemen, onartuko dena da Hezkuntza saila jarraitu dezala bere dekretua lantzen eta Andoingo udalak onartuko du Hezkuntza sailak ondo deritzona.

“Guk hori atsekabez bizi dugu, askotan esan dugu, faltan eta hori, egia da, bai bariantearen kontuarekin, ostalaritzaren kontuarekin, hemen beti, tradizio munizipalistaz eta ez, harro egon garen areto honetan faltan botatzen dugu indar horrekin Andoingo udaleko zerbitzuak eta egiturak, azpiegiturak nahiko indarrarekin defendatuko dituen alderdiak eta gobernuak egoteak eta aldiz, kontra, iruditzen zaigu azkenean daukagula gainontzeko erakunde nagusietan, bai Diputazioan, bai Jaurlaritzan, agintean dauden horientzat erosoak izango diren udal taldeak ditugu eta nik uste dut Andoingo udalak defendatu behar duela siglen gaintik bere zerbitzuak eta, uste dut, gaur onartuko den mozioan, gehiago osoarekin noski, ba, oso ondo, bainan ez du konpromisorik hartzen eta orduan, ikusiko dugu zer onartzen den dekretu horretan azkenean, negoziazioak zer ematen duen, herrietatik zer egiten den, oposizioak ere, Parlamentuan zer lortu dezaken, baino, behintzat, Andoingo udalak galduko du eskaera bateratu eta irmo bat egiteko.”

Jarrian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Zinegotzi Ahaldua Izagirre andrea da baino, saiatuko naiz berak emandako ideiak eta gobernu taldearen izenean ere, arrazoitzen zergatikan aurkeztu dugun.

“Hasi nahiko nuke esaten gobernu talde hau osatzen dugun bi alderdiok erabat exigentzi maila hori eta zorroztasun maila hori bera edukiko dugula Lanbide Heziketa Oinarrizko hau Andoainen dagokionean, defendatzeko, sustatzeko edo bultzatzeko baino, aipatu behar da, nik uste dut, mozioa erregistratu zenuten momentuan bertan, Zinegotzi Ahalduak, uste dut azaldu zizueten bezala, mozioan eskatzen diren gauza asko, dagoeneko dekretu testu horretan txertatuta daude.

“Gauza egiteko asko, literalki txertatuta daude, honenbestez, guk aipatzen genuena, jakin dezagun joko edo kanpo joko zein den, hortik aurrera, udaletxeak zuzenean parte hartzen ari dira dekretu honen redakzioan, ezin liteke esan ez garenik parte hartzen ari, baizik eta gure ekarpenak egiten ari gara, ekarpen horiek aztertzen ari dira eta horietako asko eta asko sartzen ari dira, horrenbestez, mozioaren hildoa edo zentzua izan zitekeen positiboa, ematen du ezerezetik hasten garela eta ez, lan bat egina dago.

“Horregatik, egiten dugun testu honek aldarrikatzen du gehiago egiten lan horretan sakontzeko, jarraitzeko eta nolabait exigenteak izaten, baino, bide horretan, hasita dagoen bide batetan.

“Ez nator bat Zuluetak esaten duen ekarpenarekin, ezingo dugula aportaziorik egin, ez. Udalak kasu honetan ari da aportatzen, de hecho, dekretu testua ere baduzue eta ikusiko duzue nola hemengo eskaera asko sartuta dauden.

“Honenbestez, bai, azaldu, gobernu talde honek ez duela Bilduren mozioaren kontra egiten, kontra egiteagatik, baizik eta, dagoeneko martxan dagoen lan bati jarraipena emateko, aldarrikapen bat egiten duela eta, por cierto, eskatzen dugun testua, baita ere, azpimarratu nahiko nuke, adostasun testu bat dela, Eusko Legebiltzarrak, aho batez, onartutako testu bat da. Ez EAJ eta PSEk bakarrik, baizik eta EH Bilduk ere. Ekarki nahi izan dugun testua, nolabait, kontsentsu testu bat aurkeztu nahi izan dugu.”

Jarrian, Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko.

“Arratsalde on. Por comentar, desde el grupo municipal socialista, consideramos imprescindible el refuerzo y la defensa de la Formación Profesional Básica, como un instrumento para el desarrollo personal y la inserción laboral de aquellas personas que optan por orientar sus estudios hacia esta modalidad, por ello, consideramos que es también fundamental la cooperación y coordinación tanto por parte del Departamento de Educación del Gobierno Vasco con los ayuntamientos.

“Indicar que, cierto es que podemos coincidir con algunos de los puntos de la moción que ha presentado EH Bildu pero, creemos que tenemos que dejar margen al Gobierno Vasco para que analice y siga profundizando en esas medidas a tomar. Si deben ser esas u otras las medidas a adoptar con el objetivo de reforzar la Formación Profesional Básica.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:



“Desde nuestro grupo, Elkarrekin Podemos, vamos apoyar la moción de Bildu, porque compartimos las peticiones que hace, pensamos que, es verdad que hay que reforzar la formación profesional básica, es verdad que, es un camino a la reinserción y creo que, es verdad también que se podían dar más recursos. Desde Elkarrekin Podemos en el tema de la educación lleva una política yeye, pero, sí que pensamos que, hay que agotar todos los recursos, la formación es básica en una persona, hay que reforzar estos recursos y vemos que son insuficientes. Hemos visto que las peticiones de EH Bildu no son nada descabelladas, no están pidiendo algo que pensamos que no pueda llegar.

“En cuanto a la moción alternativa, sí que vemos, como no vamos a compartir, todos lo vamos a compartir, lo que pone no, la vemos insuficiente. Es una moción que se ha metido hoy a última hora, que tampoco ha dado mucho tiempo para situarse y desde nuestro grupo pensamos que podría haberse metido un poco antes y que en nuestra opinión es bastante incompleta.

“Yo ya me voy acostumbrando a que aquí se hacen mociones alternativas que las podemos hacer cualquiera, en mi opinión son mociones alternativas de bien queda, es decir, unos compromisos que no exigen nada, no dicen nada. Hemos instado desde nuestro grupo y se nos ha dicho que instar es un brindis al sol, pero aquí veo que se hace mucho, unos si y otros no y, nosotros desde luego, vamos a apoyar la moción de Bildu porque, no solicitan a este Pleno nada descabellado, una dotación a los ayuntamientos para un refuerzo de la formación profesional básica, que solicitemos unos recursos, unas herramientas que, ahora mismo, cuando se está haciendo el decreto que lo regula y se están incluidas muchas de las propuestas de la moción en lo que se está aportando desde los ayuntamientos, todavía veo más incoherente el que no se pueda apoyar esa moción, no sé cómo decirlo más claro, si están presentado propuestas que están en esta moción, la moción no se puede aprobar pero, esas propuesta se han llevado, entonces son buenas cuando se presentan para negociar, pero no son buenas para aprobarlas aquí, no me queda nada claro.

“Luego, hombre, pues a lo mejor, no sé hasta qué punto se ha podido negociar o no el que esto no, pero otra cosa sí; a nosotros lo que no nos parece es, la moción alternativa, una moción incompleta, sinceramente, instar, toda esa instancia y toda esa cosa, me parece, un poco cojo el tema, lo han dejado así, por cumplir y ya está. Es nuestra opinión.”

Berriro ere, Zulueta jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko.

“Laburrean, benetan, azkenean dekretu baten eztabaida prozesua dinamikoa izateaz gain, konplexua ere bada, artikuluen erredakzioak ere ez duelako gehiegi laguntzen ere hori behar bezala eramateko. Gure udal taldetik jarraitzen ari garenetik, badago zirriborro hori, bai Izagirre andreak pasatakoa eta guk beste bideetatik horren garapena jasotakoa eta mugimenduak daude. Egia da, gauza batzuk, ez dakit jasotzen diren, baino gutxienez atea irekitzen zaie, baino ez dira finkatzen.

“Gastuaren finantzazioan aipatzen da, orain edo, badirudi onartzeko bidean dagoela udalek ezingo dutela gehiago gastatu, hau da, diru partida horietaz gain udalak ezingo duela diru gehiago jarri eta horrek adibidez, Gizarte Langile Orientatzailearen kasuan, guk proposatzen duguna finantziatzeko konpromiso hori hartu dezala, Integratzaile Sozialaren figura gastuen justifikaziorako onartzen da edo, onartuko dela dirudi, baina, ondoren ikusi beharko da ematen den finantziario horretarako adina ematen duen edo ez, adibidez, eta horri gehitzen badiogu udalak ezin duela bere aldetik finantziarioan lagundu ba zalantzan jarri dezake. Badakit nabardurak direla baina dekretu baten negoziarioan uste dugu inportantea dela edo, berdin langileen formazioan, aukera berdintasunarena sartzen dela, ez da bermatzen, ba bueno, eskatzen den formazio espezifikoa, abar eta abar.

“Egia da eztabaida potoloa da, termino guztiak kontrolatzea zaila da. Berriro diogu, uste dugu gurea oso asumiblea dela. Oinarrizko Lanbide Heziketa zentro bat duen herri batentzat oso asumiblea da, ez gara ari eskatzen, telesaielen bezala, egin edo asumitu ezin daitezkeen konpromisoak. Puntu zehatz horiek finantziatzeko ziurtatu dadila eta hori da ziurtatzen ez dena.

“Mozio alternatiboaren logika da bat onartzearena eta gurearen kontra bozkatzeko arrazoia izatea. Pena da, besterik gabe. Jarraituko dugu, ikusiko dugu zer onartzen den eta ikusiko dugu Andoingo zentroan zer nolako eragina duen, zer nolako zerbitzua eman ahal izango dugun. Besterik gabe.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNVko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:



“Nik, lehenik eta behin, eskertu Zulueta jaunari, bere tonu egokia, Santana andreak berriz harritu egin nau, porque, política yeye, bien queda cojo, ez dakit etorri bada zirkoa egitera oso ondo baina, edukietan sartu nahi baduzu sartuko gara, bale.

“Aipatzen du dokumentu honek gizarteratze figura eta gizarteratze figuraren inguruan eta esaten du Jaurlaritzak asumituko duela bere gain figura hori, beraz, exigimos que se asuma la figura.....primer punto, asumitzen du figura hori. No, no, si vamos a entrar al fondo dejarme por favor argumentar y entramos a fondo. Entonces, primer punto, laguntzen lerroa udalaren gastua finkatzen du. Hay un compromiso para una línea de ayudas de inversiones, inbertsioetarako laguntza lerro espezifikoko bat irekitzeko aukera dago eta zuzendaritzan, dagokion zuzendaritzan aztertzen ari dira eta hori ere jasota dago, beraz, inbertsio lerroa ere jasota dago.

“Konbalidazioak. Yo no puedo, konbalidazioez arau amankomun bat unilateralki hartu. Konbalidazioak eta hala esplikatu dizue teknikariak, norberak eskatu beharreko elementuak dira, ez erakunde batek zuzenean aplikatu beharrekoak. Osea, sartu behar baldin badugu gaira, sartzen gara, baina, aipatzen ari gera fondoan, edo helburuan ados egon gaitezkeela alderdi guztiak, baina, badagoela jada dagoeneko lan bat eginda, bide bat eginda eta, bide horretan sakondu beharko da.

“Dirudi gehiago ekartzen dugula mozio hau esateko, no, Bildu y Podemos exigen al Gobierno Vasco que..., hombre, todos exigimos, todos exigimos. Denak nahi dugu Oinarrizko Lanbide Heziketa Andoainen kontsolidatzea, indartzea eta denboran mantentzea, denok, faltaría más, baina, ematen du nolabait desitxuratzeko errealitate bat exigitzen, gauzak dagoeneko superatuta daudenak, beraz, gobernu taldea osatzen dugun bi alderdiok egin dugu udal araudi honek eskatzen dugun bezala, aztertu edo ez eta, mozio hau ikusi dugunean egokiagoa zela beste formulazioa bat sartzea, erregistratu dugu mozio bat eta, Santana andrea, iruditzen zait, goizeko 11:30tan edo 12:00tan sartu dugun mozio bat, parrafo bateko mozioa irakurtzeko, aztertzeko eta examinatzeko denborarik ez baldin badaukagu ba sentitzen det, baina izan dira mozioak eta kontramozioak plenoa baino bi minutu lehenago erregistratu direnak, eta nik uste dut udalgintza horrela dela eta ez dugula inongo borondate txarrez egin eta parrafo bat aztertzeko, berriro diot, gai ez baldin bagara, pues bueno, ez det hitz egingo berriro ere política yeye, cojo, bien queda, pues bueno, dagoeneko exigitzen ari gauza horiek, ez balira egongo bezala.

“Exigimos que se haga esto, no, ya se está haciendo, no todo, no todo, ya sé que el Sr. Zulueta estará buscando. Habrá cosas que seguramente, ez, horregatik eskatzen dugu osatu dezagun, bete dezagun, konpletatu dezagun, baina, izan gaitezen errealistak, ez da Oinarrizko Lanbide Heziketa gaurko pleno honetan martxan jartzen, denbora daukagu lanean eta udalgintzatik goazen ekarpenak egitera modu proaktibo batean.”

Zulueta jaunak erantzun du:

“Ez nuen parte hartu nahi, baino, ibilbidearena nik esan dut, hau da, hemen ibilbide luzea egin dela, “Taller Ocupacional” hasi eta gaur egungo egitura bitarte eta oso ibilbide oparoa eta bere emaitzak eman dituen. Nabardura modura, esan dut lehen dekretuaren debatea ez dela erraza izaten eta ulertzeko, baina, Goenaga jaunak esaten duenean, la figura del integrador social jasotzen da, ez. Dekretuaren zirriborroan jasotzen dena, gazteleraz hori bai, hori lan egiteko beste modu bat. Asimismo, se podrán incluir los gastos del personal, Integrador Social. Hau da, lehen esan dudana, se podrán incluir los gastos, baina, ez du ziurtatzen, hau da, gastuak zuzitzeko orduan aukera izango da hori ere zuzitzeko, zuk ere oso ondo ulertzen du zer esan nahi duen.

“Hori da, zuk edukiko duzu diru partida bat eta horren barruan aukera izango duzu eta beste gauza bat da esatea, bai, figura hori egongo da, ziurtatuko da eta bermatuta.

“Etengabeko erreplikan ezin gara ibili, zuk esan duzun bezala, ez naiz bilatzen hasiko, baina, justu esan duzun hori erredakzioan jasotzen dena hau da eta ez dago ziurtatuta, dago zuziketaren partean, aukera izango da hori sartzeko, ondoren ikusi beharko dugu finantzazioaren arabera udalak zenbateraino ematen dion, hau da, daukan egitura gehi hori sartu izango duen, nondik kendu. Besterik gabe, hau definitiboa da.”

Goenaga jaunak erantzuten du:

“Matiz bat, nik uste dut, Zinegotzi Ahaldunak berak, konbertsazio pribatu batean adierazi dizue nola



aurkeztu den konpromezu bat horretarako testuak jartzen duenaz aparte. Osea, adierazi dizkizue nolabaiteko konpromezu batzuk dagoeneko hartuta daudela eta lantzen ari direla, ez dakit zer testu, zer bertsio puntutan gauden, baina nik uste dut, Izagirre andreak berak adierazi zizuen eta bera ari bada kudeatzen zuzenean informazio bat izango du. Hortik aurrera, ni ez naiz kudeaketa horretan ari, baina borondatea bai egon da azaltzekoa, gutxienez, puntu horietako bakoitza zer egoeratan dauden eta, ez naiz esaten egoera normatiboa, zeren egoera izan daiteke, kudeaketa, gestioa, negoziazioa, zer hitz egiten ari diren, zer terminotan eta hori saiatu da elkarbanatzen zuekin. Horretara ni joan.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, ez da onartu.

Jarrian, Alkate andreak PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeek aurkeztutako mozioa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien botoekin, onartu du.

9. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Ez dira izan.

Alkate andreak hitza hartu du eta honakoa adierazi du:

“Amaitutzat emango dugu udalbatzarra hau eta dakizuenetz datorren astean Aste Santua dator eta alde horretatik, jaiak dauzkazuenok egun onak izan eta batez ere, denok dakizuenetz datuak, pandemiari buruz, goraka doaz eta alde horretatik, behin eta berriz, eskatu nahi dugu arduraz eta zuhurtziaz jokatzeko, oraindik ez dago zehaztuta noraino iritsiko den, orduan, alde horretatik, batez ere, indarrean dauden neurriak errespetatzeko eta arduraz eta zuhurtziaz denok jokatzeko.

“Decíamos que, bueno, las próximas dos semanas serán las vacaciones de Semana Santa y en ese sentido las personas que tengan vacaciones les deseamos que las disfruten y también que teniendo en cuenta que los datos de la pandemia van en aumento pedir que sigamos teniendo en cuenta que debemos actuar con responsabilidad y prudencia. Besterik gabe. Eskerrik asko.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19:40 minutu zirenean. Behin-behineko idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Behin-behineko idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Behin-behineko idazkaria

